

MERKATARITZAREN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Merkataritzako Aholku Kontseiluari buruzko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko uztailaren 11ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko azaroren 9an, Merkataritzako Aholku Batzordeak bilera egin zuen, eta kontseilu hartan ez zen Garberaren zabalkundeari buruzko xehetasunik eman. Duela egun batzuk, Udal Gobernuak Ilunbe saltzeko lehiaketa abian jarriko zuela jakinarazi zuen. Ilunben, Auzitegi Gorenaren epaia dela eta, metro karratu guztiak (35.000) komertzialak izan daitezke; ez lehen bezala, Jaurlaritzak 25.000 metro karratuko muga baitzuen.

Bestalde, ekainaren bukaerarako Egia eta Amara Berriko merkataritza planak aurkeztuko zirela hitzeman zuen zinegotzi ordezkariak.

Hainbat gai garrantzitsu baziren, beraz, Merkataritzako Aholku Kontseiluan lantzeko. Uztailaren 6an kontseiluak beste bilera bat egin zuen, baina deialdiaren gai ordenean ez zen gai hauetakoa bakar bat ere agertzen.

Merkataritzako Aholku Batzordearen bilera hartan, EH Bilduk Garberaren zabalkundea jarri zuen mahaigainean, eta eragileen iritzi orokorra, dudarik gabe, zabalkunde horren kontrakoa izan zen. Gai honetan hiri ereduaz ari gara, baina hala ere, Udal Gobernuak eztabaida ez izatea nahi du. Gizarte Kontseiluan ere ez da inongo eztabaidarik izan Garberaren zabalkundeaz, funtsezko gaia izanda ere.

Udal Gobernuak, gardentasuna beti ahoan izan arren, Garberako hitzarmena eta eman beharreko pauso guztiak eman aurretik eztabaida (eragile guztiekin) bultzatu beharko luke. Horrela ez dela izan agerian da.

Hori dela-eta, behean sinatzen duen zingotziak honako mozio hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

MOZIOA

1.- Udalbatzak irmoki eskatzen dio Udal Gobernuari Garberaren zabalkundea Gizarte Kontseilura, puntu bakar bezala, eraman dezala eragileen arteko eztabaida eman dezan.

Donostian, 2016eko uztailaren 15ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia